



Gure Lagunak

Mozanbikoko UNAC



Esperientzia adierazgarriak

Nekazaritzaren eraldaketarako kokalekuetako emakumeen partaidetza. Brasil



Iparrak galduta

Emakumeen Mundu Martxa



Aurpegia ematen dugu

Carolina Cruz, Nikaraguako kooperantea

Amerika Latinoko subiranotasunaren alde Ilunabarra, eguzki-sarrera.... Gau iluna Hondurasen



José Antonio Monje
Mundubat-eko kidea

Urtarrilaren 13an, Honduraseko Kongresuak berretsi egin zuen bere herrialdea Gure Amerikako Herrirentzako Itun Bolivarretik (ALBATik) irten dela. Erabaki hori, ordea, Honduraseko herriarentzako eta, oro har, Amerika Latinoko herri osoarentzako tragedia handienetakoa da. Gaur egun, hain zuzen ere, eskualde-integrazioarako proposamen berrian dago sartuta, bere gaitasunak sustatzeko eta benetako independentzia duen eremuan sinergia ahaltsuak sortzeko. Gertaera tamalgarririk hori hainbat eta hainbat faktoreen ondorioz jazo da. Dena dela, Obamaren gobernuaren ageriko partaidetza izan da erabakigarriena. Izan ere, estatu-kolpea babestu zuen praktikan, eta, horrez gain, behar besteko baldintzak inposatu zituen, ALBaren babespean apurka-apurka sendotzen ari zen mugimendu sozial osoa

desorekatzeko.

Zoritzarrez, Honduraseko estatu-kolpea gertatzea eta ALBATik irtetea Washingtonetik antolatutako amarru geoestrategikoaren beste pieza bat baino ez da, bat dator Bushen politikarekin eta gaur egun Boliviak, Kubak, Ekuadorrek, Nikaraguak eta Venezuelak hasitako independentzia-borroka modernoerik galdutako nagusitasun-eremua berreskuratzea du helburu. Yankiak ALBA eskualdea setiatzen hasi dira orain dela zenbait hilabete, Hondurasen jazo berri diren gertaerak baino askoz lehenago, hain zuzen ere. IV. flota birsortu da, zazpi base militar berri jarri dituzte Kolonbian, Curaçaoetik behin eta berriro inbaditu dute Venezuelako aire-eremua edo Haitin bertan azken inbasio "humanitarioa" gartu dute. Horra hor ageriko asmo horren adibide ezin argiagoak.

Honduraseko demokrazia gau ilunilunean dago gaur egun. Kontraesana bada ere, ALBaren sorreraren bosgarren urteurrena ospatu denetik hilabete bat ere igaro ez denean gertatu da iragaitza tragikoa. Itun horrek, hain zuzen ere, onura handiak eta garapen handia ekarri dizkie herrialde kideei. Honako ekintza

hauek dira garapen horren adierazgarri: biztanle txiroentzako doako zerbitzu oftalmologikoak sustatu dira Miraria Operazio ospetsuaren bidez; helduak Nik Ahal Dut Programaren bidez alfabetatu dira; ekonomia eskualde-mailan suspertu da Sukrea izeneko diru bateratuaren bitartez; garapenerako programak finantzatu dira eskualde-banka eskusiboaren, hau da, Banco del Sur erakundearen bidez; eskualdeko programa energetiko iraunkorra ezarri da, erregaiaren hornikuntza etengabea izango dela bermatzeko; edo laguntza medikoa, pedagogikoa eta teknikoa eman da, Kubako eta Venezuelako brigada internazionalisten bidez.

Dena dela, onura handiena eta garrantzitsuenaz azpimarratu behar dugu: subiranotasun nazionalaren erabateko eta benetako erabilera. Hain zuzen ere, horixe bera izan zen Honduraseko herriaren bekatu handiena, eskubide horren erabilera, alegia. Era berean, Obamaren administrazioarentzako zauri odoltsuena ere izan zen, hau da, borrhoroari egindako laido ankerrena. Azkenean, zoritzarrez, horixe bera izan da halako ausardiagatik ordaindu beharreko prezio garestia.





Mozanbikoko União Nacional de Camponeses (UNAC)

Nekazarien Batasun Nazionalaren (UNACen) eraketa juridikoa 1994koa da, eta, mugimendu horretan, Mozanbikere osoko nekazariak elkartzen dira irabazi-asmorik gabeko elkarteetan antolatuta. 1987an sortu zen, nekazarien garapen ekonomikoa sustatzeko eta euren bizi-baldintzak hobetzeko.

Sortu zenetik gaur egunera arte, UNACek hainbat jardura garatu ditu, nekazarien eskubideak defendatzeko, landa-ingurune elkartegintza sustatzeko, prestakuntza teknikoa zein administratiboa bultzatzeko, garapenerako proiektuak egin eta abian jartzeko eta larrialdietako ondorioei aurre egiteko (zorigaitzak, hondamendi naturalak...).

Mozanbikoko biztanle gehienak landa-inguruneak, txiroak eta analfabetoak dira, eta nekazaritza zein landako ekoizpen-jarduerak dituzte bizibide. Kolonizazioak, 16 urte iraun zuen gerra zibilak, globaliza-

zioak eta era guztietako hondamendi naturalek babesgabe eta ahul baino ahulago utzi dituzte nekazari txiroak, eta, gehienetan, elkartasuna baino ez dute aurrera egiteko.



UNAC kooperatibetan, elkarteetan eta elkarrekiko laguntzarako beste sistema tradizional batzuetan dago antolatuta. Horra hor kreditu eta aurrezkirako ohitura tradizionalak (Xitique) eta nekazaritzako lanekuaren txandakako banaketa (Ma-

funana). Izan ere, jardun positiboak dira ia-ia herrialde osoan. Nekazarien garapenaren aldeko borrokan, autoantolakuntza funtsezko tresna da helburuak lortzeko orduan. Ondo

sortutako eta eraturako oinarrizko erakunde bateratuak edukiz gero, landa-ingurune biztanleentzat errazagoa izango da euren errealitate sozial, politiko eta ekonomikoari buruzko eztabaidetan parte hartzea.

Barrutik antolatzekeo premiaz gain, UNACek badaki zeinen garrantzitsua den kanporantz ere egitea. Hartara, elikaduraren subiranotasunaren alde ere lan egiten du mundu-mailan, Nekazarien Bideko kidea da-eta.

Mundubat 2008an hasi zen UNACekin lan egiten, giza garapenaren arloan munduan adierazle txikiak zituzten herrialdeekin lan egitea eta elikaduraren subiranotasuna indartzea erabaki zuenean. Izan ere, gure lan-ardatz estrategikoetako da.

Esperientzia adierazgarriak

Nekazaritzaren eraldaketarako kokalekuetako emakumeen partaidetza. Brasilgo hegoaldeko eskualdea



Kontraparteia: Cepatec
Kostua guztira: 488.583,78 €.
Eusko Jaurlaritzaren ekarpena: 358.438,67 €

Brasileko hegoaldeko eskualdeko hiru estatuetako nekazaritza-erlaldaketarako kokalekuetako emakumeen (MSTrekin daude lotuta) partaidetza sozial, politiko eta ekonomikoa areagotzeko ekintza integrala proposatzen da: Parana, Santa Catarina eta Río Grande do Sul. Horretarako, proiektuak aldi bereko eta elkarren menpeko lau frontetan lan egingo du (bi urtez):

1. Behar besteko baldintza ekonomiko eta finantzarioak sortzea, CREHNOR sisteman fondo fiduziarior moduan jarritako txandakako kreditu-fondoaren bitartez emakumeen taldeek garatutako ekoizpen-jarduerak gehitzeko eta hobetzeko.
2. Talde parte-hartzaileen ekoizpen-gaitasun teknikoa eta antolaera indartzea, prestakuntza eta laguntza teknikorako prozesuen bidez.

3. Behar besteko ekintzak garatzea, emakumeen autonomia ekonomikoa eta jabeakuntza hobetzeko.

4. Azkenik, esperientzien sistematizaziorako prozesuko elementu teoriko eta praktikoak garatzea, proiektu honen bidez hasitako prozesuari jarraipena emateko eta ekintza-eremua handitzeko.

Talde onuradunak nekazaritzaren eraldaketarako kokalekuetako emakumeek eratan dituzte, eta nekazaritzako zein abeltzaintzako jarduerekin lotura zuzena edo zeharkakoa duen nolabaiteko ekoizpen-jardura garatzen ari dira.

Horrelako talde gehienak ez dira kreditu-subjektuak, euren esku dauden programetan (PRONAF Mujer, esaterako) ezarritako legalitatea eskatzen dietelako. Proiektu honetarako aurreikusitako dugun hasierako unibertsoan, talde askok ez dute ez eraketa-aktarik ez legezko estatuturik, hau da, ez-formalak dira.



Sareen garaia

EUSKAL HERRIKO MUNDU MARTXA

Emakumeen Mundu Martxak Euskal Herria zeharkatuko du martxoan

Emakume guztiok askeak izan arte jarraituko dugu martxan!

Emakumeen Mundu Martxa (MMM) ekintza feministen nazioarteko mugimendua da, eta oinarriko erakundeak zein taldeak elkartzen dira bertan, txirotasunaren zein emakumeen aurkako indarkeriaren zergatietei aurre egiteko. MMM emakumeek bizi dituzten era guztietako desberdin eta bereizkeria guztien aurka borrokatzen da. Bere balioek eta ekintzek aldaketa soziala, ekonomikoa eta politikoa lortzea dute helburu, eta elkartasunen globalizazioaren, gizon zein emakumeen berdintasunaren, emakumeen auren arteko berdintasunaren eta herrien arteko berdintasunaren inguruan antolatzen dira.

2010ean, Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko hirugarren ekintza garatuko da, eta lau jarduketa-arlo izango ditu helburu: herri-oinarria, bakea eta desmilitarizazioa, emakumeen lana eta emakumeen aurkako indarkeria. 2010eko urrian amaituko da Kongon.

Mundubat MMMko Euskal Herriko Plataformako kidea da, eta honako hauexek izango dira plataforma horren hurrengo ekintzak:

- Martxoaren 8tik 13ra, Euskal Herrian zehar egingo da martxa, bertako herriak eta herriak morez tindatzeko.
- Aldarrikapenerako horma-irudia egingo da. Martxan, borroka feministak eta aldarrikapenak jarriko dira ikusgai horma-irudian, eta, soineko-formatuan, MMMk Kongon egingo duen nazioarteko ekintzara eramango dute.
- Lekuko-liburuan, gainera, amets eta borroka feminista guztiak eta plataformaren ekintzara hurbiltzen diren emakume guztien ekarpenak agertuko dira.

MMMko Euskal Herriko Plataformak sustatutako ekintzei buruzko informazio gehiago lortzeko, bere blogean sartu:

<http://2010emakumeenmundumartxa.blogspot.com/>

“Feminismoa pentsaera, proiektu soziala, alternatiba eta mundu-ikuskeria desberdina da. Feminismoa desberdintasunen egiaztapenetik eta boterea lortzeko premiatik haratago doa. Hona hemen gure helburuak: desberdintasunaren inguruko beldurra betikotu, desberdintasunaren inguruko gorrotoa sustatu eta indarkeria justifikatzen duten sistemak desegitea; eta bazterketa sortu eta nagusikeria handitzen duten sistemak salatzea.”

(Emakumeen Mundu Martxa).

Iparra galdu gabe

Agenda

- Otsailak 15. Hitzaldia
“**Emakumeak eta giza eskubideak Medellineko hirian**”
Alejandra Londoño (Medellineko Gazte Sarea)
Antolatzailea: KOLEKTIBA KOLONBIA
Munduko Emakumeen Batzarra. Bilbo
- Otsailak 16. Hitzaldia
“**Beste era bateko harremana ezarri daiteke herrien artean**”
Erromoko parrokia. Getxo. Bizkaia
- Otsailak 17. Hitzaldia
“**Gazteak eta giza eskubideak Medellineko hirian**”
Alejandra Londoño (Medellineko Gazte Sarea)
Antolatzailea: KOLEKTIBA KOLONBIA
Taberna 70. Vitoria-Gasteiz
- Otsailak 18. Hitzaldia
“**Gazteak eta giza eskubideak Medellineko hirian**”
Alejandra Londoño (Medellineko Gazte Sarea)
Antolatzailea: KOLEKTIBA KOLONBIA
La Bolsa Kulturgunea. Yhon Jauregia. Bilbo
- Martxoak 6. Kontzentrazioa eta ekitaldi ludikoa
“**Kolonbiako Estatu Krimenak gogoratzeko egunean**”
Kantariaren kontzertua eta “**Club de los Poetas Rojos**” taldearen olerki-errezitaldia
Antolatzailea: KOLEKTIBA KOLONBIA. Hikateneo. Bilbo
- Martxoaren 8tik 13ra
“**Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian zehar**”
- Martxoak 24, 25 eta 26. Foroa
“**Gazteak eta nekazariak**”
Antolatzailea: EHNE eta Mundubat. Durango

Erakusketak

- Urtarrilaren 26tik otsailaren 9ra. Argazki-erakusketa
“**Emakumeok esna gaude**”
Ramales de la Victoriako ikastetxea. Kantabria
- Otsailaren 1etik 13ra. Argazki-erakusketa
“**Emakumeak eta nekazariak**”
Clara Campoamor Kultur Etxea. Barakaldo. Bizkaia
- Otsailaren 1etik 22ra. Argazki-erakusketa
“**Giza eskubideak Palestinan eta Golanen**”
Hikateneteo. Vitoria-Gasteiz
- Otsailaren 23tik 28ra. Argazki-erakusketa
“**Giza eskubideak Palestinan eta Golanen**”
Micaela Portilla Kultur Etxea. Dulantzi. Araba
- Otsailaren 14tik martxoaren 12ra. Argazki-erakusketa
“**Emakumeok esna gaude**”
Barakaldoko Udal Liburutegia



Aurpegia ematen dugu

Carolina Cruz, Nikaraguako kooperantea



"Antolakuntza bateratuak gora egin du Nikaraguan"

Noiz eta zer testuingurutan sartu zinen Mundubat-en?

1998ko otsailean, PTMko (Mundubat-eko) bulegoetara joan nintzen Chontalesen, Agronomiako karrerako bi hilabete eta erdiko praktikak bertan egin ahal nituen eskatzeko. Eskabidea onartu zidaten, eta urtebete eta erdiz egon nintzen boluntario. Gero, Eneko Gerrikabeitiak fitxatu ninduen, Granadako Malacatoyako proiektua egiteko. Eskerrik asko, Eneko!

Mundubat-en bertan, Nikaraguako zein Guatemalako ordezkarietzan zein Bilboko egoitza nagusian lan egin duzu. Nola bizi izan duzu lankidetzan-lana batean eta bestean?

Herrialdeek euren berezitasunak dituzte, baina gure lanaren helburu diren biztanleen arazoak antzekoak dira. Dena dela, nabarmendu egin behar dut herrialde bakoitzaren kultura erabakigarria dela. Lehenengo eta behin landu beharreko elementua da, atzeritarra ez zarela sentitzeko. Benetan eskertzen dut Guatemalan lan egiteko aukera eman izana, neure sustriak topo egin nuelako: herri indigena.

Nikaraguan, Guatemalan eta Bilboko egoitza nagusian garatutako lan-erperientzia aberasgarria izan da erabat. Lan-arloan zein arlo pertsonalean hazi naiz. Egoitza nagusian egindako lanari esker, erakundearen profil osoa lortu nuen, eta osagarri ezin hobea izan zen, ordezkarietzan eta egoitza nagusian egiten diren lanen nondik norakoak hobeto ulertzeko. Azkenean, eta mugarik gabe, nire ustez, bizi-proiektu honetan parte hartzen dugun gizon eta emakumeon ahalginen eta apustuen uztarketa da egiten dugun lana.

Zure ustez, europarrok ondo edo txarto ezagutzen dugu Nikaraguako eta, oro har, Erdialdeko Amerikako errealitatea?

Nire iritziz, Erdialdeko Amerikari eta, batez ere, Nikaraguari "etiketak jarri" dizkietenez, ez dira be-

har bezala ezagutzen, eta ez dira herrialdeetan gertatutako aldaketa logikoak agerian jartzen. "Etiketaz" ari naizenean, komunikabideen bitartez adierazitakoaz eta saldutakoaz ari naiz. Komunikazioko profesionalak merezi duten errespetu osoaz, beti ez dira iturri fidagarria, albisteak saltzailearen ikuspegitik ematen direlako eta oso gutxitan direlako herritarrek sentitzen dutenaren adierazgarri.

Nire ustez, eta ez batean lan egiten dudalako, GGKE-ek hobeto ezagutzen dute herritarren errealitatea, eta, are gehiago, Erdialdeko Amerikako herrialdeetako kasuan kasuko funtzionarioek baino hobeto ezagutzen dutela esango nuke. Aldi berean, GGKE-ek lan handia garatzen dute, biztanleak herrialde txiroen errealitatearen inguruan sentsibilizatzeko orduan. Hori dela eta, informazioa herritar guztiengana iristen da.

Nola ikusten duzu zure herrialdeko eta eskualdeko etorkizuna?

Erantzuna zaila da benetan. Oro har, Erdialdeko Amerikako egoera politiko eta ekonomikoa ziurgabea da. Nikaraguako egoera ez da batere ona, legegintza-bermea kolokan jarri dutelako, eta, herrialde batean euskarri konstituzionalik ez badago, argi eta garbi dago anabasa izango dela nagusi.

Nolanahi ere, nahas-mahas politiko horren erdian, herrialde osoko antolakuntza bateratuak gora egin du, hezkuntza sustatzen ari dira eta lege garrantzitsuak onartu dira; esate baterako, elikaduraren subiranotasunari buruzkoa. Lege berria ere sektore kooperatiboaren mesederako izan da, baieta gobernauk ekonomia bultzatzeko abian jarritako programak ere. Baikorra naiz, eta herri antolatua aurrerapenaren giltzarria dela uste dut. Beraz, hori bermatuta badago, edozein ezberri aurre egin ahal zaio.

Argitalpenak

Chiapas eta Guatemala. Bakerik gabeko lurraldeak



Iparraldeko Ekintzen Sailaren koordinaziopean eta Unai Aranzadiren zuzendaritzapean, Mundubatek Chiapas eta Guatemala. Bakerik gabeko lurraldeak dokumentala ekoitzi du 2009. urtearen amaieran. Lan horretan, giza eskubideen egoera aztertzen da konpondu gabeko bi gatazka armatutan: Chiapas eta Guatemala. Estatuek bi lurralde horietako alternatiba sozialei etengabe eraso egiten dietenez, erresistentziak sortu dira, eta borroka antolatuak jarri dira abian, herri indigenen autodeterminazioa, emakumeen askapena eta giza eskubideen defentsa lortzeko.

Fitxa teknikoa
 Iraupena: 30 minutu
 Sistema: DVD
 Hizkuntza: espainiera eta euskara
 Zuzendaritza eta gidioia:
 Unai Aranzadi
 Kamera eta edizioa: Unai Aranzadi
 Koordinazioa: Mundubat-eko
 Iparraldeko Ekintzen Saila
 MUNDUBAT © 2009

Eskatzeko:
 emintegi@mundubat.org
 edo (+34) 944162325 telefonora



**Bat egin!
 Izan bazkide**

Mundubat GGKE
 Sombrerería, 2 3. / 48005 BILBO
 (+34) 944 162 325
 mundubat@mundubat.org
 www.mundubat.org